

EUSKAL ZUZENBIDEARI BURUZ, LEIZAOLAREN GORATZARREZ

Hil berri zaigun Leizaola Lehendakari zaharraren gomutapenean, hitz franko isuriko dira nonnahi. Alderdi askotako gai ukitzaila izanik, bere euskararekiko atxikimendua, kultur grina eta iharduera politiko abertzale izango dira, besteak beste eta ziur asko, bere nortasunaren izate aipagarri eta laudatuena.

Baina Leizaolak, merituak meritu, lerro handi horiexen tartean ere, badu legegizon euskaldunentzako halako eredu gisa-ko oharpen eta esannahia, Leizaolarengan uztartzen bait dira, bere belaunaldiko beste inorengan ez bezalaxe, legegizon aiurria eta jatorrizko euskalduntasuna. Izan ere, Leizaola da, mende honetako bi lehen herenen jurista euskaldunen tartean hitza eta ekintza batuko dituen, ikerketa juridiko-teorikoak eta euskarazko eragiketa praktikoak ezkonduz eta bultzatuz.

Jaiotzaz donostiarra (1896) eta berez euskalduna izanik, horrek paregabeko aukera eskainiko dio bere iharduera juridiko eta politikoetan euskarari buruz jokatzeko. Batetik heziera juridiko baten jabe izango delako (Lege ikasketak eginak ditu Valladolid-en) eta bestetik gobernu erakundeetan ardura eta lanak hartuko dituelako, gerra aurrean zenbait erakundetako idazkaria izateaz at (Gipuzkoako Aldundia, Bilboko Udala) gerraldian, Lehen Euzko Jaurlaritzaren «Zuzentza eta Gogo-Lantzea» sailaren burua bere gain harturik, azkenean gerra ostean, Agirreren heriotza ondoren Jaurlaritza horren Lehendakaritza jadesi arte.





Guztitan lan esker ga eginez noski, Euskal Herriaren alde.

Beraz, Leizaolaren ezaugarria osotoro borobiltzeko, ezinbestekoa dugu bere legegizontasunaz ihardutea. Eta legegizontasun honez aritzerakoan, Leizaola kokatu beharra daukagu, beste izen handi batzuren aldamenean, legegizon abertzaleen aldran, non beste batzu ere lekutzen diren, hala nola Irujo eta Galindez. Hiru autore hauen artean eta beren lan juridikorik jakingarrietan (Irujo-ren «Instituciones Jurídicas Vascas (1945) eta Galindez-en «El Derecho Vasco» (1947) edo Leizaolaren «Contribución de los vascos a la formación y a la Ciencia del Derecho») Euskal Herriaren Lurraldeetako zuzenbideen gaitetik, Sabino Aranak proposaturiko «Euzkadi» horren inguruan ahaleginak bilduz. Foru Zaharrak eraberritzeko eta berrindartzeko beharra dago, idazle hauen ustetan, baina sentidu berri bat emanez, alegia, Foruak Euskal Herriaren adierazleak diren neurrian, zuzenbidearen eskola historikoaren ildotik. Honela, Foruetako edukin positiboa mantendu behar den ber, horien eguneratze prozesua ere nahitaezkoztat jotzen da, Euskal Herriarentzako «Estatuto» baten markoan.

Jesús M.^o de Letzaola

**Contribución de los vascos
a la formación y a la Ciencia
del Derecho**

Publicaciones Minerva
BILBAO: 1937




Marra nagusi hauek inguraturiko marko teorikoan, halere, legegizon abertzaleon ekoizpen juridikoa, gehienbat gazteleraz gauzatzen da eta Leizaolarena ezik, erbestean gainera, gerra bukatu eta gero, bere obren argitalpenen datei jarraionik eginez gerotz. Honela, esaterako, Irujoren adierazpenak, «esku-bide» hitza dela eta, erakargarriak izan arren erderaz formulaturikoak dira. Leizaolak, bere hasieran, euskara soilean idatziko du 1923. urtean, orain arte testamentuei buruz idatzi den euskarazko artikulurik aintzindariena. Berau argitaratuko da, urte berean, ARGITA aldizkarian, «Ogasunak, jabea il ondoren» izenburuarekin. Hortxe, Leizaolak topo egiten du jurista euskaldunak betidanik izan ohi duen arazo latza eta mergatzarekin: euskararen praktika juridikorik eza. Hutsuneak betetzekotan, eta testamentuez ari dela, Leizaolak bere irtenbideak proposatzen ditu, haictariko batzu euskarari baliagarri izan dakizkiokeelakoan. Zenbait aukeratzekotan, kasuz, hona hemen erderazko «Notario» hitza nola ematen duen euskaraz: «Latziñaldaria»; «lagi»-«ziñaldaria» eta beraz «lagi-legge», Sabino Aranaren eredura erabiliz eta hark asmatuturiko berdinketa eginez, halako «legezko lekukoa» edo ordaintzen du erderazko «notario»; «ziñaldari» berba testamentuetako lekukoentzat lagatuz. Gerokoan ere, gerra garaian, oso maiz erabiliko da «Latziñaldaria» eta «ziñaldaria» erderazko «notario» adierazteko, halako duda-muda egon arren itzultzaileen artean, batzutan «ziñaldaria» esango bait dute, esaterako Euzkadiko Ziñaldarien Elkarteak sortzen duen Dekretuan (Euzkadi-ko Agintaritzaren Egunerokoa, 366 orr.) eta ostera «Latziñaldaria» alderatuko dutelako bere Erreglamendua arautuko duen Aginduan (Euzkadi-ko Agintaritzaren Egunerokoa, 1427 orr.).

Honela, ba, klasikotzat jo daitezkeen «eskribu» edo «eskribadu» eta kultoagotzat hartzen den «baratari» (Ohienarte-ren 59. atsotitza) adieren alboan bi esamolde berriak sortzen dira, «lagi» berbatik ateratakoak: «latziñaldaria» edo eta «latari» (Retana Hitzegia, 2636 orr.), denak erderazko «notario» euskaraz adierazteko, egunagokoa den «notari» ahanzteke.

Halabaina, asaba zaharren hizkuntzarekiko gogo horiek ez dute Leizaolarengan euskal zuzenbidearen edukinari buruzko

lana bazterrerazten eta honela zuzenbide foralaren gunean leku-
turik, testamentu egiteko askatasun eta Gipuzkoako tronkalita-
tearen gainean idatzitako artikulua bana eskaintzen digu 1933.
urtean, erderaz, «Yakintza» aldizkarian.



Parisen bere familiagaz, 1939-VII-31an

Esandako guzti honek halako axola zientifikoa erakusten
badigu ere, zientifikotasun horrek ez du inola ere ukatzen Lei-
zaolaren alderdi praktikoa. Leizaolak, Madrileko diputadutzan
zein Eusko Jaurlaritzaren ekintzetan ez du gogo hori sekulan al-
boratuko. Honela ahalak eta lerrak egingo ditu, gerra bere
osoan dagoela, Eusko Jaurlaritzaren «Egunerokoa» euskaraz eta
gaztelera emateko. Bi zutabe edo hiletako sistema baten bi-
dez (euskara eskuinean, gaztelera eskerrean) hortxe gertatu zen,
lehen aldiz, euskararen eta zuzenbidearen arteko lehen lotura
historikoa, bortizki moztua gerokoan baina lehen lekukotza zu-
zena. Bertan itzulpena dela medio, euskarak, mundu juridikoa-
ren abagunea ezagutu eta bere berben bidez adierazi zituen or-



Gernikan, 1931-VI-12an

durarte arrotz zitzaizkion konzeptuek, hala nola «Decreto, Gobernación» eta abar luze bat.

Leizaolak berak maisuki azaltzen digunez:

«1936-garren urtean egun batetik bestera agintari-izkeratzat oso-osoan jartzea etzan zeregin txikiya. Euskera etzala onelakoetan beñere sartu esan diteke... Egunerokoa nere eskutetan osatu nituen lenengo eta bigarrengo Egunerokoak». («Irakurlei» Leizaolak Egunerokoaren argitalpenean-Durango - Leopoldo Zugaza-1977»).

Lorraz honetatik jarraituz, guztiz erakusgarri izan daiteke, egungo irakurlearentzat, esaterako, 1936ko Urriaren 9tik 1937ko Ekainaren 17ra arteko aldiari, Leizaolaren Sailatik jaulkitako araugintza, hortxe bait daude, besteak beste, Euzkadiko «Audiencia Territorial» (1944 orr.) «Colegio Notarial» (366 orr.) eta bestelako erakunde juridikoen sorkuntza aginduak (berrogei urte lehenago gainera) edo eta Euskal Unibertsitatearen (324

orr.) antolamendu arauak; haien ondoan, gainera, xedapen piloa datorrela, akurapenak, Epaitegiak, eta edonolako gaiak ikutuz, beti ere atonketa zehatzaren helburuz, legegizon aditu baten esku irmoak gidatuak.

Baina Leizaolaren edu juridikoa eta pentsamolde historikoak biltzen dituen tokia bestelakoa izango da, eta hain zuzen ere, gerra aurreko girokoan argitaratua, alegia, «Contribución de los vascos a la formación y a la Ciencia del Derecho» delako liburua. Hortxe errepatatuko ditu, mendez mendez, Euskal Zuzenbidearen bilakaeran zehar gure herriak eman dituen erakunde juridikoak eta haien zabalkuntza, bai bere ingurune geografikoan eta baita ere hurrunagoetan. Leizaolak berak baieztatzen du, bere eginkizunaren hasieran:

«Porque me he propuesto presentar ante vosotros una síntesis de lo que Euzkadi y sus hijos han hecho por la obra de la formación y la ciencia del Derecho».

Eta Gipuzkoako «Euzko-Ikastola-Batza»rentzako hitzaldia zena liburu egina eman zigun Leizaolak (1935an) bere ikerketan kontrajartzen dituela, euskal zuzenbidea, zuzenbide erronkatarra, islamiarra eta germaniarren aurrean, taju eta edu desberdinetako errealitateak legez. Euskal Zuzenbidearen izatea aztertuta dago hazpegi publiko eta pribatuetan idazki honen barne. Zuzenbide euskotarren hasikinak gogoratuz, Nazioarteko Zuzenbidearen euskaldunak jokaturiko zeregina aipatzen du, bere orrialdeetan Ercilla, Ayala, Vitoria eta Vazquez Menchaca aldera ekarriz, eta bereziki hauen artean Vitoria, honet duen garrantzia azpimarratuz; Azpilicueta nafaratarra ere ahaztu gabe. Ohargarriak baita ere Bilboko Merkatal Ordenantzei buruz duen kapitulua eta Hego Ameriketako euskaldunek sorturiko eragin politiko eta juridikoaz dagoen atala.

Honek guztionez tajutzen du, Leizaolarengan eta jurista abertzale hauen belaunaldian, gai juridikoak ikustatzeko molde berri bat, aintzinatik datorren Euskal Herriko Lurraldeetako zuzenbidei bere nortasunik den gutxiena ere kendu gabe, haruntzago doan jas berri bat, Foruetatik Estatutara doan tankera sor-

tzailea, Euskal Herri batu baten ideiaaren inguruan mamitu nahi den Euskal Zuzenbidea, alde batetik Foru tradizioak bilduz, garaik modernoen eskakizunei erantzuteko haien berriztapenaz eta bestetik ere euskal zuzenbide berria sortuz, horretarako beharrezkoak diren burujabetasuneko erakundeak eraikiz, prozesu horretan euskara ere alboratzeke.



Honela bakarrik uler daiteke belaunaldi honetako jurista gogoratu harek (Galindez-ek) orain hogeitamar urte direla esan zuena, herriak aldatzen doazen ber zuzenbidea ere eguneratu beharra dagoela gogorazteko:

«Sería absurdo que los vascos quisiéramos regirnos en pleno siglo XX por las leyes que redactaron nuestros antepasados hace cinco siglos. En ellas hay mucho que persiste y persistirá, pero también hay mucho de muerto y anticuado. La labor que nos toca realizar a los hombres de nuestra generación es precisa-

mente tamizar el pasado, extraer lo esencial y eterno, para fundirlo con aquello que de bueno aprendamos en otros países, en el crisol de nuestra libertad recobrada» («El Derecho Vasco», 12 orr.).

Bide horretan gaurko euskal juristok ere zerbait egin beharra daukagulakoan, azter dezagun beraz Leizaolaren eredu eta adibide lagungarri izan bekigu euskal zuzenbidea eraberritzeko lan horretan.

Andres Urutia